



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak antzezlan, kontzertu eta nazioarteko dantza konpainien emanaldi interesgarriak eskainiko ditu apirila eta ekaina bitartean; eta ekoizpen propioko opera bat berreskuratuko du

- Aitana Sánchez-Gijón, Marta Poveda, Diana Palazón, Diana Navarro, Joan Carreras, Carlos Hipólito, Blanca Marsillach, Miguel Rellán eta Imanol Arias dira, besteak beste, Arriagara etorriko diren artista handietako batzuk.
- Arriaga Antzokiak Schönbergen *Erwartung (Itxaronaldia)* opera berreskuratuko du, Ausrine Stundyte soprano bikainarekin eta Calixto Bieitoren oholtzaratze harrigarriarekin.
- Akran Khan Company eta Iceland Dance Company Bilbora itzuliko dira euren lan berriak aurkezteko, eta Arriaga Antzokian estreinatuko da Mikel del Vallek bultzatutako MDVdanza konpainiaren azken pieza.
- Musika askotarikoa eta kalitatezkoa izango dugu denboraldiko azken hiruhilekoko programazioan: Jakub Józef Orliński kontratenorra, Albert Pla, BJC Arriagan zikloa, Urko, Quique González, Ene Kantak...

Bilbo, 2022ko otsailaren 1a.- Arriaga Antzokia denboraldiaren une zirrargarri batean murgilduta dago. Une honetan *Erresuma/Kingdom/Reino* Arriaga Antzokiaren ekoizpen berriaren prestaketa abian da, Calixto Bieitoren zuzendaritzapean egiten ari dena; eta orain, aldi berean, apiriletik ekainera bitartean eskainiko diren ikuskizunen berri emateko ordua heldu da.

Arriaga Antzokiak programazio aberatsa eta askotarikoa osatuko duten 22 proposamen ditu: era askotako antzezlanak, gustu guztietarako kontzertuak, dantza proiektu zirrargarriak, eta ekoizpen propioko eta maila goreneko opera.

Antzerkia ikusteko irrikaz daudenek honako antzezlan hauekin gozatu ahal izango dute: *Malvivir* (apirilaren 1etik 3ra), **Aitana Sánchez-Gijón, Marta Poveda eta Bruno Tambasciorekin**; *Ladies Football Club* (apirilaren 8an eta 9an), **Sergio Peris-Menchetak** zuzenduta eta emakumezko aktoreen talde zabalarekin, besteak beste, **Diana Palazón, Silvia Abascal eta Carla Hildalgorekin**; edota *El golem*, **Juan Mayorgarena** eta **Alfredo Sanzolek** zuzendutakoa (apirilaren 22tik 24ra).

Diana Navarroren interpretazioak ere jakin-mina piztuko du Concha Piquerrena egingo baitu *En tierra extraña* izeneko obran, antzerkiaren eta musikalaren artean dagoen horretan (maiatzaren 7 eta 8an). Obra honek Concha Piquer eta Federico García Lorca

(**Alejandro Vera**) omentzen ditu. Maiatzaren 22an **Una noche con los clásicos** eskainiko da, **Miguel Rellán** eta **Blanca Marsillach**-en eskutik egingo den emanaldian. Obraren abiapuntua **Adolfo Marsillach**-en ideia bat da eta **Mario Gas** du zuzendari.

Ospe handiko beste pertsonaia bat **Carlos Hipólito** da, maiatzaren 27an eta 28an **Oceanía** obran ikusiko duguna, **Gerardo Veraren** bizitzaren testamentu artistikoan. Gainera, Arriaga Antzokiak Arthur Millerren **Muerte de un viajante** klasikoa berreskuratuko du ekainaren 8tik 11ra, **Imanol Arias** protagonista duena eta joan den abuztuan, Bilbon estreinatu behar zenean, bertan behera utzi behar izan zena.

Arriagan beste proiektu batzuk ere izango ditugu, hala nola, **Sólo críos, críos solos** (maiatzaren 4an). Antzezlanak **Paco Gámez**ena da eta aukeratua izan zen Gasteizko Principal Antzokiak, Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak eta Arriaga Antzokiak berak bultzatutako «Antzerkigintza berriak-Nuevas dramaturgias» ekimenean, eta mutil migratzaileek antzezten dute; Arriagan ikusi ahal izango ditugu ere **Puños de harina** (maiatzaren 5ean), **Jesús Torresen** antzezlanak, 2019ko Teatroautor Expres saria jaso zuena, Sgae Fundazioaren eskutik; **Historia de un jabalí o Algo de Ricardo** (maiatzaren 25ean), **Joan Carrerasek** Aktore Onenaren MAX Saria lortzea eragin zuen muntaia; edo **Canción para volver a casa** (ekainaren 5ean) **Denise Despeyroux**-en lana, gaztelaniazko biran ikusi ahal izango duguna, katalanezko jatorrizko **Cançó per tornar a casa** ekoizpenak izandako harrera onaren ondoren.

Opera berezi bat

Arriaga Antzokiak aurreko denboraldiko bere delicatessen proiektuetako bat berreskuratu eta berriro eskaini nahi izan die Bilboko ikusleei apirilaren 29an eta 30ean: **Erwartung** opera, **Ausrine Stundyte** soprano bikainak interpretatuta, **Calixto Bieitok** diseinatutako oholtzaratze harrigarri eta aldi berean benetan eder baten gainean. Abeslari lituaniarra gaur egun nazioartean gehien goraiatzen den ahotssetako bat da, eta 2019an Bilboko ikusleak liluratuta utzi zituen euskaraz abestuz Usandizagaren **Mendi-Mendiyanen** muntaia bikain hartan, Calixto Bieitok zuzendutako Arriaga Antzokiaren ekoizpenean. Halaber, Stundytek bere aztarna ezarri zuen Arte Eszenikoen MAX Sarien azken galan, emanaldi bikaina eskainiz.

Zalantzarik gabe, lirikaren zaleentzat opari bat da Ausrine Stundyte maila handiko artistak opera hau interpretatzea, **Arnold Schönbergen** musikarekin eta Marie Pappenheim-en libretoarekin. Harekin batera, pianoan, **Andrej Hovrin** maisua egongo da, musikari errusiar bikaina, agertoki onenetan ikusi ohi duguna, pianista laguntzaile gisa 10 urterekin hasi zena. **Gaizka Chamizo** aktoreak ere parte hartuko du ikuskizunean.

Dantza bikaina

Arriaga Antzokiak hiru dantza-ikuskizun eskainiko ditu 2021-2022 denboraldiaren azken hiruhilekoan. Ordena kronologikoan, lehena euskal konpainia baten estreinaldia da, **MDVdanza**, edo, bestela esanda, **Mikel del Valle** koreografo eta dantzariaren proposamen berria. Arriaga Antzokiak konpainiarekin elkarlana egiten du **Arquitectos del aire** izeneko ikuskizuna ekoizteko, eta maiatzaren 12an estreinatuko da. Eraikinen historia eta arkitektura dantzaren bidez transmiti al daitezke? Hiru eraikinek eta hiru begirada koreografikok ondare industrialari buruzko gogoetara bultzatzen gaituzte, bidaia arkitektoniko dantzatu baten bidez.

Beste bi proposamenak nazioartean ospe handia duten konpainienak dira, bilbotarren artean ezagunak direnenak; izan ere, aurreko muntaiak arrakastaz erakutsi baitituzte Arriaga Antzokian bertan. Maiatzean bertan, hilaren 20an eta 21ean, Iceland Dance Company indartsua itzuliko da gurera. Bere ikuskizunek beti sortu izan dute harridura

handia, dantzaren indarragatik eta Erna Omarsdóttir-en proposamen koreografikoaren intentsitateagatik eta sakontasunagatik. Orain, **Romeo ♥ Juliet** obra karismatikoarekin ausartzen dira. Shakespeareren lana abiapuntutzat hartuta, Erna Ómarsdóttir-en eta Halla Ólafsdóttir-en **Romeo ♥ Juliet**-ek dantza garaikidea, arte bisuala eta Prokofieven musika uztartzen ditu. Emaiza, boteretsua bezain ederra da, amesgaizto higuigarri bat da; odolez, maitasunez, balletzko exorzismoz, suz, dantzaz eta heriotzaz beteriko mundu abstraktu bat.

Azkenik, ekainaren 3an eta 4an, **Akran Khan** koreografo ospetsuak *Oihaneko liburua* klasikoari egindako interpretazioa ikusi ahal izango dugu. Akramek eta bere taldeak Mowgli-ren bidaia berrirudikatzen dute, klima-aldaketaren inpaktuak suntsitu duen mundu batean harrapatutako errefuxiatu baten begiradatik. Haur horrek lagundu egingo digu mundu naturalaren ahotsak berriz ere entzuten, gu, mundu modernoa, isilarazten saiatzen ari garen ahotsak entzuten. **Jungle Book Reimagined** (*Oihaneko Liburu Berrirudikatua*) hamar dantzarik interpretatzen dute, proiektzio ederrak oinarri dituen eszenografia oso bisualean, eta eszenatokia gaurko mitoetan murgiltzen den mundu magiko bihurtzeko musika iradokitzailearekin.

Musika: kalitatezkoa eta askotarikoa

Kontzertuen atalak gustu anitzentzako hitzordu interesgarriak eskainiko ditu. **Albert Plak** apirilaren 7an joko du *¿Os acordáis?* proiektua aurkezteko eta **Quique González** ere Arriagan izango da **Sur en el valle** bere lan berriarekin, maiatzaren 29an. Hiru egun lehenago, maiatzaren 26an, euskarazko musikaren erreferenteetako batek, **Urkok**, bere abestiak eta beste kantutxo herrikoi batzuk joko ditu, Bilboko Udal Musika Bandaren elkarlan bereziarekin, José R. Pascual-Vilaplanaren zuzendaritzapean.

Bilbaina Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak bultzatutako **BJC Arriagan** zikloak bi data ditu programatuta. Grammy sarietarako izendatua izan den eta nazioarteko Jazzean talentu handienetakotzat jotzen den **Alfredo Rodríguez** pianista kubatarra hirukote formatuan etorriko zaigu apirilaren 19an; eta **Tobias Meinhart** saxofonista alemaniarra, New Yorken duela hamabost urtetik bizi denak, hiri horretako jazz-eszenako artista europar bikainenetako batek, bere **Berlin people**—bere jaioterria den Alemaniako eta New Yorkeko musika kulturak batzen dituen proiektua—interpretatuko du maiatzaren 17an Bilbon.

Bestalde, Arriaga Antzokiak etxeko txikientzat ere irekiko ditu ateak; izan ere, 2 urtetik gorako haurrek egutegian markatzeko data bat dute, ekainaren 12a, **Ene Kantak** proiektu arrakastuaren ikuskizun berria egongo baita. **Liluragarria** (*Gorputz barrura goaz Txantreako Erraldoiekin*) du izenburua, eta Nere eta Eneko pertsonaiak, abesti eta koreografiaren artean, giza gorputzean barrenako bidaia liluragarri batean eramaten ditu. Familia gehiagorengana iritsi ahal izateko, Arriaga Antzokiak ikuskizunaren bi emanaldi programatu ditu, bata 12:00etan eta bestea 17:00etan.

Azkenik, musika-programazioak harribitxi bat ezkututzen du: **Jakub Józef Orliński** kontratenor poloniarra, nazioarteko eszenan meteorito bat balitz bezala sartu denak, maiatzaren 6an egingo duen emanaldia. Prestakuntza New Yorkeko Juilliard School-en egin zuen eta jada grabatu du arien lehen albuma, **Anima Sacra**, kritikaren goraiamenak jasoz eta Opus Klassik sari ospetsua irabaziz bakarkako ahots grabazioarengatik. Gramophone saria ere jaso zuen 2019an, artista gaztearen kategorian. Baina, gainera, oso artista karismatikoa da, eta milaka jarraitzaile ditu sare sozialetan: bai opera barrokoko interprete gisa gurtzen dutenak, bai bere beste alderdi harrigarri batengatik, breakdance dantzaria izateagatik, miresten dutenak. Arriaga Antzokiko bere debuta zirraragarria izango dela aurreikus dezakegu. Purcell eta

Händel egile barrokoen piezen aukeraketa bat interpretatuko du, Schuberten eta Poloniako konpositoreen orrialdeez gain, eta Michał Biel-ek lagunduko du pianoan.

Iragarritako 22 ikuskizunei, ABAOk antolatuta apirilaren 6an Arriaga Antzokian izango den kontzertua gehitu behar zaie, non lau bakarlarik, Verum Orkestra Sinfonikoak eta Bilboko Opera Koruak Rossiniren bi obra interpretatuko dituzten: Giovana d'Arc eta Stabat Mater.

Sarrerak salgai izango dira otsailaren 5ean

Sarrerak otsailaren 5ean, larunbatean, jarriko dira salgai, ohiko bideetan:

www.teatroarriaga.eus helbidean eta antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegietan.

Arriaga Antzokiak programatutako ikuskizun guztiei buruzko informazio zehatzagoa:

<https://www.teatroarriaga.eus/proximos-espectaculos/?lang=eu>

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus